KRISTAU ERRESUMETAKO GIZARTEA

Kristau-erresumetako gizartea hiru talde edo estamentutan banatzen zen: **noblezia, kleroa eta nekazariak**.

- **Noblezia** zaldunek osatzen zuten; zaldunak erregeren **basailu** ziren, hots, haren mendekoak. Gazteluetan bizi ziren eta gerra zuten jarduera nagusi.
- **Kleroa** apezpiku, abade, apaiz, monje eta mojek osatzen zuten. Monasterioetan bizi ziren eta kultura eta otoitz egitea ziren haien egitekoak.
- **Nekazariak** herrixketan bizi ziren, eta lurra lantzen zuten. Gehienak **jopuak** ziren, hots, noble edo abade baten mendekoak, eta eskubide gabeak.



Erdi Aroko herrixka. A. Gaztelua. B. Etxebizitzak. C. Eliza. D. Soroak. E. Errota.

Birpopulaketa

Errege-erregina kristauek konkistatzen ari ziren lurrak okupatzeko pertsonak behar zituzten, lur horiek landu zein defenda zitzaten. Okupazio horri **birpopulaketa** esaten zaio.

Nekazari **judu** eta **mudejar** asko beren lurretan geratu ziren lurrok errege-erregina kristauek konkistatu zituztenean ere. Horiez gain, lur berriak birpopulatzera iparraldeko **kristau**ak eta Al Andalusetik ihes egin zuten **mozarabiarrak** ere joan ziren.

Horren ondorioz, kristau-erresumetan hiru erlijiotako pertsonak bizi ziren elkarrekin: kristauak, musulmanak, bai eta juduak ere.

Konkistatutako lurrak oso handiak zirenean eta haietan jende gutxi bizi zenean, errege-erreginek noble eta monasterio nagusiei ematen zizkieten; horrela, azkenok lur-jabe handi bihurtu ziren. Lurralde zabal horiek **jaurerri**ak ziren.

Jaurerriek herrialde txikiek bezala funtzionatzen zuten. **Jaun**ek, hots, lurren jabeek, honako eskumen hauek zituzten beren lurretan: justizia banatzea, beren armada izatea, zergak kobratzea eta lanean zituzten nekazariak kontrolatzea, bai eta beren txanpon propioa egitea ere.

LIVEWORKSHEETS

Bizimodua Erdi Aroko hiri batean

Erdi Aroan, biztanleriaren gehiengoa nekazaria zen eta herrixketan bizi zen. Baina XIII. mendean, komertzioaren hazkundeari esker, hiriak hazi egin ziren.

Hiria auzo edo **burgu**tan banatzen zen, eta bertako biztanleak **burges**ak ziren. Gehienak artisau eta merkatariak ziren, eta merkataritzan aritzen ziren.

Erdi Aroko hiriak **harresi**z inguratuta zeuden. Eraikin nabarmenenak **katedral**a, hots, eliza nagusia, **udaletxe**a eta noble edo merkatari aberatsenen **jauregi**ak ziren.

Azokaren plazan merkatari eta nekazariek beren saltokiak jartzen zituzten.

Hiriak **kontseilu** batek gobernatzen zituen; kontseiluan artisau eta merkatarien ordezkariek hartzen zuten parte. Gaur egungo udalen jatorria dira.

Erdi Aroko hiria. A. Gaztelua. B. Harresiak. C. Jauregia. D. Azokaren plaza. E. Katedrala. F. Udaletxea. G. Eliza.

Artisautza

Erdi Aroko hirietako biztanle asko **artisauak** ziren (arotzak, ehuleak, errementariak…) eta **tailer edo lantegi**etan egiten zuten lan.

Lanbide bera zuten artisauak **gremio**tan bildu ohi ziren.

Artisauak hiru kategoriatan banantzen ziren: **maisuak** (tailerren jabeak), **ofizialak** eta **aprendizak.**

Merkataritza

Merkataritza jarduera oso garrantzitsua izan zen Erdi Aroaren amaieran. **Merkatariak** hirietan bizi ziren, **merkataritza-azoka**tan biltzen ziren eta produktuak plazetan trukatzen zituzten.

Merkataritzak oparotasuna ekarri zuen hiri batzuetara. Hori dela eta, eraikin handiago eta ikusgarriagoak eraiki ziren, hala nola jauregiak, katedralak eta **unibertsitateak**. Azken horiek irakaskuntza-zentroak ziren eta entzute handia ematen zieten hiriei.

JARDUERA ➢ Birpasatu irakurritako guztia hemen klikatuz.

LIVEWORKSHEETS